

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Zaborren tasaren errolda, 2023ko lehenengo hiruhilekoko

Jendurrean jarriko da 2023ko lehenengo hiruhilekoko zaborren tasaren errolda hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada zaborren tasaren erroldaren aurka jendurreko 15 egun baliodunetan, ordaintzeko epea hasiko da.

2023ko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (bi horiek barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, zaborra biltzeko zerbitzuaren ordainagiriak, 2023ko lehenengo hiruhilekokoak.

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen zergabilketa arautegi orokorrak, eta ehuneko bosteko errekaruarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; errekaru hori bateragarria da luzapen errekaruarekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2023ko martxoaren 2a

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**